

GIB - A R E N A U R R E A N

Espanian, hiru GIB-diagnostikotatik bat, gizezkoen arteko sexu-praktiken ondorio da.

Egin diren ikerketen arabera, gizezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonen % 10 baino gehiagok GIB infekzioa du.




ADI IBILI

ESPAINIAN, GIB-A HAINBAT INFEKZIO BERRI SORTZEN ARI DA BESTE GIZONEZKOEKIN SEXUA DUTEN GIZONEN ARTEAN

Infekzioa areagotzen ari den biztanle-talde bakarra, gizezkoekin sexua duten gizonena da.

GIB-DIAGNOSTIKO BERRIAK GIZONEZKOENGAN.

● HETEROSEXUALAK ● HOMOSEXUALAK ● INJEKTATUKO DROGAK



2007an, GIB-diagnostiko berrien erdia baino gehiago, infektatutakoek HIESa garatua zutenean eman ziren.

Horrek esan nahi du hamarkada bat baino gehiago zeramatzatela birusarekin bizitzen ari zirela jakin gabe.

Diagnostiko berantiarrek tratamenduen onurei etekina ateratzea eragozten dute eta, ondorioz, pronostikoa eta bizi-kalitatea txartzen dira.

Infekzio berrien erdia baino gehiago, GIBarekin bizi direla ez dakiten pertsonak eragiten dute.

BABESTU ZAITEZ, ETA ORAIN GEHIAGO.

ROSA 900 601 601
GURUTZE GORRIA 900 111 000



www.felgtb.org



coordinadora
gai lesbiana

www.cogalies.org



www.colegaweb.org



www.msps.e

ZIUR GARRANTZITSUENA BADAKIZULA?

- GIBetik babesteko modurik onena, uzki-koitoan hasieratik bukaerara arte beti kondoa erabiltzea eta ahoan eiakulatzea saihestea da.
- Uzki-koitoan, lubrifikatzaile hidrosolublea (ur-oinarria duena) preserbatiboaren ezinbesteko osagarria da, mukosak babesten dituelako eta haustura-arriskua gutxitzen duelako.
- GIBa duten pertsonekin elkartasuna eta errespetua izatea oinarrizkoa da.

AHO SEXUA, ZALANTZARIK BAI?

Felazioak uzki-koitoak baino askoz ere arrisku txikiagoa dakar, baina zure ahoan eiakula dezaten saihestu.

Gertatuz gero, ez ezazu semena irentsi eta ahoa urarekin bakarrik garbitu, beste produkturik erabili gabe.

Ez garbitu hortzak aho-sexua praktikatu aurretik edo ondoren.

Kondoa erabiltzen baduzu, sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk (STI) ere prebenituko dituzu.

ARRISKU MAILA MODULATU?

SEROSORTING-A EGITEAK ARRISKUAK AREAGOTZEN DITU

Zenbait gizonek, euren sexu-lagunak, GIBaren aurrean duten egoeraz diotenaren arabera aukeratzen dituzte.

GIB negatiboa bazara, gogoan izan infektatutako gizonezkoen herenak ez dakiela infektatuta dagoela.

GIB positiboa bazara, gogoan izan GIB positibo diren beste gizonezkoekin babesik gabeko sexu-harremanak edukitzeak berriro infektatzeko arriskua areagotzen duela eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuk ere har ditzakezula.

BIKOTEKIDEA DUZU?

Bikote egonkorra edukitzea, ez da berez GIBaren kontrako bermea.

Bietako bat beste norbaitekin infektatuz gero eta babesik gabeko sexu-harremanak badituzue, transmisio-arriskua handia da.

Har ezazu zure osasuna zaintzeko erantzukizuna. Ez ezazu espero besteek zure orde hartuko dutenik.



ESPOSIZIOAREN ONDORENGO PROFILAXIA

Arrisku handiko egoeren ondoren GIB negatiboak diren pertsonen kasu berezietan eman diezaiekeen tratamendua da.

Adibidez: GIB positiboa den gizonezko batek kondoirik gabe (edo hura hautsi bada) uzki-sexuan eiakulatu dionean.

Hori gertatzen bazaizu, zoaz ospitale batera hango profesionalak zure kasua azter dezaten.

28 eguneko tratamendu horrek GIBaren infekzio-probabilitatea murrizten du, 72 ordu igaro aurretik (hobe lehenengo 6 orduetan) ematen bada.

PRAKTIKA ARRISKUTSURIK IZAN BADUZU, EZ ITXARON, EGIN EZAZU PROBA.

Zoaz zure sendagilearengana, osasun-zentrora edo espezializatutako GKE batera. Han, zure kasua aztertuko dute, probaz hitz egingo dizute eta berriz ere egin beharko duzun eta noiz adieraziko dizute.

**BETI ERE,
URTEAN BEHIN
EGIN PROBA.**